




ESTATUEN BIKTIMAK



Zauriak zabal-zabalik dira

Euskal Herrian azken hamarkadatan bizi izan den gatazka politikoak mota askotako biktimak eragin ditu. Giza Eskubideen Behatokiak estatuen hainbat biktima elkartu zituen 2014ko hondarrean, haien sufrimendua azaleratu eta kontzeptu-mapa batera eramateko. Gerra zikinaren biktimak, presoan senideak eta torturatuak bildu zituen taldeka, sentimenduak partekatu eta gizartean ikusgarri egiteko helburuarekin.

GALek hildako Ramón Oñederra *Kattu*-ren gurasoak elkarrizketatu ditugu, Pruden Oñederra eta Arantza Bergara. Iker Moreno torturatu eta torturak sakon ikertu dituen Oihana Barrios psikologoaren testigantzak ere ekarri ditugu. Izaro Arruarte anaia eta bikotea ditu espetxean, Almeria-Paris 2.000 kilometroko lerroan bidaia-tzen du 19 hilabeteko umearekin.

Xuban Intxausti izan da biktima hauen bizipenen azalratzea dinamizatu duena: barnean dituztenak mahai-gainera atera, paperera eraman eta ondoren kontzeptu-mapa bihurtu. Ekimenak balio izan zien barrenak arakatu eta esperientziak partekatzeko. Horrez gain, Intxaustiren esanetan, “oso garrantzitsua da sufrimendua gizarteratzea” eta horretan jardun dute hainbat hilabete-tan hainbat hedabidetan. Biktimez inoiz baino gehiago hitz egiten den garaian, herritar askok sufritzen jarraitzen du oraindik. Pertsona zehatzen bidez, haien egoeraren printza bat eskaini nahi izan da LARRUN honetan.



Gerra zikina, tortura eta presoan senideen sufrimendua azalertzeko Giza Eskubideen Behatokiak egindako talde dinamikak bideratu zituen Xuban Intxaustik. (Argazkia: Dani Blanco).

■ **Egilea: Xabier Letona**

Azala: Joseba Larratxe · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.476. zenbakiarekin banatua, 2015eko irailaren 27an).

Iker Moreno, torturatua: “Torturatzailleek ni hiltzea desio izan nuen”

“Dena da ETA” doktrinaren biktima da Iker Moreno Atarrabiko gaztea. Ekin erakundeko kide izateaz akusatuta, seguruenik 2016ko udaberrian epaituko dute, beste lau lagunekin batera. Fiskalak zortzi urteko espetxe zigorra eskatu dio. Bere torturen deskribapen zehatz eta beldurgarria ez zen oharkabean pasatu interneten.

2011ko urtarrilean atxilotu zuten eta 2012ko uztailean baldintzapeko askatasunean utzi. Orain Auzitegi Nazionalaren zain da. Ez da samurra bi pintxo lasai jatea berarekin elkarrizketa egin ondoren. Hainbatetan hari ere ez zaio erraz egiten hizketan jarraitzea. Torturak berari zer ekarri dion, horretaz mintzo da. Torturen salaketa jarri zuen eta, ohi bezala, artxibatu zen: “Ez da froga nahikorik”.

Lau urte eta erdi pasatu dira atxilotua eta torturatu izan zinenetik. Nola zaude orain?

Orduetik honakoa nire barruan aldatzen joan den zerbait izan da. Inkomunikazioa bukatu, abokatuarekin egon nintzen eta oso nekatua nengoen, baina barneko sentipena zen “hau gainditu dut, ez naute hil, ez dute nirekin bukatu”. Banuen garaipen sentipen bat. Espetxean emandako urte eta erdian ere ez nion garrantzi berezirik eman. Gurasoei, hala ere, bai esan nien poztu nintzela espetxera eraman nindutelako, espetxeak ematen zidalako segurtasun maila bat, banekin handik ez nindutela berriz galdeketetara eramango.



Torturak jasandako 12 lagun bildu ziren Donostian 2014aren hondarrean. Haien solasak datozen orrialdetan dagoen torturaren kontzeptu mapa egiteko balio izan zuen. Argazkian, betaurrekoekin, Iker Moreno dinamikaren une batean. (Arg.: Giza Eskubideen Behatokia).

Atxiloketa aurreko hilabeteak ere gogorrak izan ziren, inguruko jende asko atxilotu zutelako eta poliziaren furgoiak etxe inguruan ibiltzen zirelako. Badakizu tortura hor dagoela. Jende askok egin izan du ihes torturaren beldur. Gero espetxea, eta horrek eskatzen dizula hartara egotea: “Hemen egon behar dut eta hemen zentratuko naiz”. Espetxetik atera ondoren ere jendeak esaten zidan ze ongi nengoen eta halakoak.

Urtebetera, aldiz, bat-batean hasi nintzen nire buruan oso erreakzio arraroak sumatzen: haserrealdi oso bortitzak, egoera batzuetatik berehala atera beharra, hainbat egoera ezin jasan... Psiko-

logoarekin hasi nintzen eta ohartu nintzen gauza asko barruan nituela; gertatutakoari aurre egiteko baliatu nuen estrategiak agian balio izan zidan egoera batean, baina gerora ondorio batzuk ekarri zituen.

Atxilotu eta Madrilera gindoazela mozorroa jarri, postura mingarrietan bidaiatzera derrigortu, kolpatu, umiliatu eta denetik esaten zidaten: pedera nintzela, ETako kidea, ez dakit nor hil nuela... eta une batetik aurrera egoera hura ezin nuela onartu eta mutu eta gor gelditzea erabaki nuen: “Panpin bat zara, zure gorputza badute eta saia zaitetz burua har ez dezaten”, esaten nion nire buruari. Ondorengo egunak oso gogorak izan ziren eta haiek ni hiltzea ere desio izan nuen, nire gorpua arazo handi bat bilakatzea haientzat.

Gero, espetxetik ateratzerakoan eta egindako guztia kontatzen nuenean, banuen sentazio arraroa, uste nuen nire buruaz arinkeriaz ari nintzela, hori guztia niri egin izan ez balidate bezala, film batean ikusi izan banu bezala. Banekien barrabaskeria horiek niri egin zizkidatela, baina ez nituen sentitzen, ez nintzen gai barrutik ateratzeko.

Iazko Sanferminen aurreko psikologo saio batean, hark eskatu zidan nik bera paretaren aurka jartzeko –gau oso bat izan ninduten horrela komisaldegian eta aluzinazioak ere izan nituen– eta ez nintzela gai erantzun nion. Orduan, paretaren kontra ni jartzeko eskatu zidan, jarri nintzen eta bat-batean dardara betean hasi nintzen eta negar batean; psikologoak atera behar izan ninduen paretatik. Aste oso batean giharrak ere minduta izan nituen ondoren, baina bere alde ona ere izan zuen, ohartu nintzen zer egin zidaten eta hori barruan nuela. Hau da, torturatu eta hiru urtera, torturatu nindutela lehenengo aldiz sentitzeak, egindakoa egin zidatela berresten lagundu zidan.

Zer aldatu du horrek zure bizitzan?

Uste baino gauza gehiago. Seguruena ez da hori bakarrik: atxiloteta aurreko garaia, atxiloteta, lau



Giza Eskubideen Behatokiak Donostian egindako talde dinamiken une bat. (Arg.: Behatokia).

urtez epaiketaren zain egotea... Barrutik ez zaude ongi eta hori onartu beharra duzu. Depresioa diagnostikatu zidaten. Badakit gertukoekin ditudan liskar asko lehen ez nituzkeela izango. Ez da hitz egiten horiez, baina egoera hauek uste baino ondorio gehiago dituzte.

Hitz egiten duzu halakoez antzeko egoeran izan direnekin?

Ez da erraza, baina konfiantza dudan batzuekin hitz egin dut. Donostiara kontzeptu-maparen dinamika egitera joan ginenean ere bai, eta eskertu nuen. Torturarekin uzten dizuten erruduntasun sentazioa kentzea ez da erraza. Beraien helburuetako bat zu suntsitzea da, horretarako beste pertsona batzuk salatu behar dituzu eta ondoren pertsona horiekiko egindako salaketak zure gainera botatzen dituzu. Nik argi dut izen horiek ez nituela nik esan, beraiek jarri zizkidaten ahoan, ez nekien nori buruz ari ziren ere.

Baina gero epailearen aurrean ez zenuen poliziaren aurreko deklarazioa aitortu eta torturak salatu zenituen.

Bai, baina beti duzu halako sentazioa bat: “Agian gehiago eutsi izan banio...”. Haien eskutian hil nahi nuenean halakorik pentsatzea arinkeria da nire aldetik, baina gero horiek hor dabilta

“

Torturarekin uzten dizuten erruduntasun sentsazioa kentzea ez da erraza. Beraien helburuetako bat zu suntsitzea da”

bueltan norberaren baitan. Badakit nire aurkako salaketak ere egin zirela epailearen aurrean, baina nik jende horri ez diot ezer aurpegiratuko inoiz, badakit hori zer den.

Zure kontakizuna irakurtzean, oso hasieratik isiltzen zara eta torturak aurrera egin ahala, irudika daiteke zer datorkizun. “Hitz egin dezala, hitz egin dezala” esaten nion nire buruari irakurketan aurrera egin ahala, horrekin infernu hura amaituko zelakoan.

Bai, baina badakizu hitz eginda ere hura ez dela bukatzen, beti beste zerbait eskatzen dizute, hori oso garbi nuen. Bi talde aritu ziren ni torturatzeko, lehenengoarekin egin nezakeen “antzerki” pixka bat, eutsi ahal nion pixka bat gehiago; bigarrenarekin ezinezkoa zen.

Lagunek, familiak... nola daramate hori guztia?

Ni ezin naiz kexatu, hasieratik laguntasun eta babes handia izan dut eta. Gaizki nengoela ohartu nintzenez, esan egin behar nuela erabaki nuen, “ez naiz ezkutatu, ez naiz horregatik lotsatu”. Horrek ekarri zizkidan ondorio batzuk, esate baterako, aitak ez zuen ikusten gaizki nengoela edo onartzea kostatzen zitzaion itxuraz ongi ikusten ninduen eta. Ni ere konturatzen nintzen aita sufritzen ari zela, ez zuelako ulertzen zergatik nengoan gaizki eta ezin zidalako lagundu. Egoera horiek sortu dituzte tira-bira batzuk, eta nik zera esan nion: “Aizu, nik onartzen badut arazoak ditudala, zuk ere onartzea nahi dut”.

Poliziak utzi zaitu bakean denbora honetan?

Oraingoan bai, baina esaten dute epaiketa hurbildu ahala izaten direla “bisitatxo” batzuk kalean. Lagun bat, adibidez, torturatzailerak Iruñeko kaleetan agurtu izan du. Nahiko lasai nago eta beldurra ere ez da berdina, azkenean badakizu ez duzula berdina biziko.

Eta entzuten duzunean “Espainian ez da torturatzeko”, zer pentsatzen duzu.

Horrek baieztatzen du tortura tresna politikoa dela eta helburu politikoak dituela. Oso ongi lotua dago eta politikari eta epaileek badakite hori. Nik Grande-Marlaskari [Fernando, epailea] torturak kontatu nizkionean, antsietateak jota nengoan, negarrez, gaizki usaintzen nuen... hark bazekien egoera hori ezin dela antzetzute, baina goitik behera begiratzen ninduen, Jainkoa bailitzan, ezer esan gabe. Eta egoera horretan nengoela fiskala egurra ematen hasi zen.

Zuretzat lasaigarria litzateke zure torturatzailerak zigortuak izatea?

Hori ez da gertatuko. Gustatuko litzaidake iritzia publikoak jakitea nortzuk diren torturatzailerak horiek, nork agintzen ziren torturatzailerak, haiek epaiketa batean zer egiten duten aitortzea... Haiek espetxean egon edo ez, niri ez zait ezer aldatuko.

Nola sentitzen zara biktimak gisa?

Kostatzen zait hor kokatzea eta nire burua biktimak gisa ikustea. Estatuaren aldeko biktimak *lobby* gisa antolatu dira eta hartu dute botere maila bat; nik ez dut nire burua haiekin parekatu nahi. Baina biktimaren definizioa irakurrita, horixe naiz, biktima bat, eta alde horretatik nahiko nuke tortura sozialki eta politikoki onartzea. Dirurik ez dut nahi, baina ongi legoke tratamendu psikologikoa eta halakoetarako laguntzak eskaintzea. ■

Izaro Arruarte, presoen senidea: “Batzuetan senide gisa ez-ulertua sentitzen naiz”



Izaro Arruarte 31 urteko hernaniarra da eta 12 urte daramatza Paris eta Almeria artean. 19 hilabeteko umea du. Bizi, alai, indarrez betea du jarduna, baina senide bizitzaren astuna ere ezagun zaio.

Gari anaia nagusia preso du 2003tik, Almerian, gaixo larrien zerrendan, espondilitis gaitz artritikoak jota. Ugaitz Errazkin bikotea 2012an atxilotu zuten eta Parisen da preso, Fresneseko espetxean. Hiru astez behin doa Parisera eta hiru egun pasatzen ditu bertan. Txikia jaio denetik Almeriara askoz gutxiago doa, lau hilabete behin. “Hala ere, senide presoak egunero dituzu buruan, ni ez banoa ere beste norbait doalako eta bisitak hartu behar dira, paketeak prestatu, haien mandatuak jarraitu... beti da zerbait”.

12 urtez espetxeetara atzera aurrera. Nola zaude?

Sakabanaketa zer den ahazten zaigu askotan. Besterik gabe esaten dugu, Parisera noa, Almeriara... Gehiegi ohitu gara hori esatera eta ez diogu benetan duen esanahia ematen. Ume bat hartu bere ordutegiak errespetatu gabe, hegazkinean Parisera joan, taxia hartu, korrika bisitara, ez diozu siestarik egiten uzten... Zentzu horretan, senide gisa, batzuetan ez-ulertua sentitzen naiz. Terminologia eginegi gaude zoritxarrez, eta hitz hauek duten pisua arintzen dugu. Barrukoa zer moduz dagoen galdetzen dizute, baina inor gutxi jartzen da pentsatzen zer-nolako egunak pasa ditugun momentu bat egon gaitezen maite dugun pertsonarekin.

Kontzeptu-maparen dinamikan aipatu zenuen zure senideek espetxeratu zituztenean zu erditu egin zinela. Azaldu dezakezu ideia hori?

Batez ere anaiaren atxilotetarekin, horrek ekarri zidalako nire buruaz gain beraz ere arduratzea. Presoak kanpokoan dependentzia ikaragarria du eta nik anaiarenganako ardura handia hartu nuen eta ume batekin sentitzen duzun erditze hori, orduan ere sentitu nuen. Amatasunaz esaten den zentzu berean, hau da, zurea begiratu aurretik bestearen beharrak jartzea.

Bizitza gogorra dakar horrek guztiak.

Bai, hala da, ezin dugu esan ezetz. Egoera honetan zoriontsu ezin da izan. Hainbeste maite dituzunak egoera latz horietan edukitzea oso gogorra da. “Zer moduz?” galdetzen didatenean [dio irriba-

rez] sarri esaten dut “ondo, txar guztiak kenduta ondo!”. Ez genuen aukeratu herri zapaldu batean bizitzea eta horrek hau ekarri digu gure etxera. Eutsi egin behar, ez dago besterik.

Beti da esperantzarik, edo batzuetan amiltzen da?

Esperantza beti dago hor, bestela zer zentzu du bizitzeak? Baina bai, batzuetan esperantza amiltzen da. Hainbat jarrera eta gertakari txikitzen zaituzte, pertsonak gara. Baina gatazka guztietan zapalduak ez du honi aurre egin besterik.

Sostengatua, lagundua sentitzen zara?

Nik zorte handia dut, Hernanin bizi naiz, herriaren babesa dut, Almeriara astero joateko Mirentxinen furgonetak ditugu, hori luxu itzela da... baina babestua... babes handiagoa sentituko nuke jendeak konpromiso handiagoak hartzen dituela ikusiko banu, egoera aldatzeko pausoak emango bagenitu. Mirentxinek egoera arindu egiten dizu, baina ni egoera aldatzeaz ari naiz.

2011n egoera zerbait aldatuko zela pentsatu zen, baina espetxeetan ez da aldaketarik izan.

Zoritxarrez, egoera aldatu da, baina okerragora. 2011n esperantza piztu zitzaidan, ez gehiegi ere, estatuek aurreko konponbide saioetan nola jokatu duten badakigulako. Gaixo larria izanik, anaiarekin nuen esperantza bereziki, agian Euskal Herriratu-ko zutelakoan. Azken finean, nik esperantza herriarengan daukat jarria eta bitartean egunerokotasunean zentratzeak laguntzen dit.

Anaia eta bikotea nola dira egoera horren aurrean?

Amorrotuta. Badugu ohitura esateko “bai, ongi daude eta indartsu”, eta hala da batetik, haiek ere egunerokotasunean zentratzen direlako, baina espetxea oso-oso gogorra da.

Umea izateak nola eragin du zure bizitzan?

Lehen bisita bat urduritasuna eta kezka iturri bazen, orain hauek biderkatu egin dira. Lehen Almeriara furgonetan joaten nintzen eta orain txikiarekin hegazkinez, beti gaude txikia eta biok. Parisera berdin. Adibidez, bitan gertatu zaigu bidaian sukar altua izatea, eta oso gogorra da etxetik 1.000 kilometrora biak bakarrik egotea eta txikia ia 40 graduko sukarra ezin jaitsiz edukitzea.

Dirua ere arazo larria izaten da.

Umea izan aurretik gutxiago gastatzen nuen, orain hegazkinekin-eta gehiago. Hilean 450 bat euro gastatzen ditut dispertsioaren erruz.

Gaixo larriak: zer eskatuko zenieke instituzioei.


Preso gaixoak lehenbailehen kalera ditzatela. Estatuek dituzte ziegetako zerrailen giltzak, baina gizarteak behartu ditzake hauek zerrailetan sartzea. Presio hori egiteko, hala ere, askoz indar handiagoa behar da.

Gizartean presoek gaia ahaztu ere egin daiteke edo arazoa lausotu. Ba al zara horren beldur?

Bai, horrek beldur handia ematen du. Estatuak saiatzen dira horretan, hemen jadanik ezer gertatzen ez den itxura hori ematen, gizartea gaiaz ahaztu dadin eta gure senideek denbora luzez preso jarrai dezaten. Baina herri honek badaki zein den errealitatea eta erantzukizunez erantzungo duela uste dut.

Presoak sostengatzen dituztenen artean ere badira ikuspegi desberdinak, izan dira hainbat eztabaida azkenotan. Horiek eragiten dizute?

Bai. Nik presoak lehenbailehen etxeratzea nahi dut eta horretarako indarra behar da, beraz, indarra galtzea dakarren guztiak eragiten dit, beldurra ematen dizu. Helburua preso guztiak etxeratzea bada, horri begira aurrera eramango gaituenak batu behar gaitu, ezberdintasun eta desadostasunak ekarpen gisa landuz, bidean indarra galtzea eragin gabe. ■




TORTURA BEGI KOLPE BATEAN

Torturaren mapa bat sortzeko eta osatzeko lanean, tortura jasan duten hamaika pertsona hautatu eta tailer batean parte hartzeko gonbitea luzatu genien, hamaika pertsona beste milakaren ordezkari gisa, hamaika pertsona gai izan direnak beren testigantza propioetatik orokorrak izan daitezkeen hitz eta esanahien bila aritzeko. Garai ezberdinetakoak, perfil ezberdinetakoak, baina denak amesgaizto berdina bizi izandakoak.

Bi orduko elkarrizketaren ondoren, esaldi esanguratsuak sailkatu behar genituen. Esaldi esanguratsuak, ez gogorrenak, ezta krudelenak ere, baina bai bakoitzaren bizipena adierazten zutenak. Horrela, esaldi anonimoz beteriko orrialde kopuru batekin topatu arte. Esaldi anonimoak, bizipenaren, barne herusturaren eta sufrimenduaren isla.

Esaldi bakoitzetik gehien orokortu eta esperientziaren isla hobekien erakus zezakeen hitza aurkitu eta adostu behar zuten, eta hortik berriz esaldi bat eraiki, berriro esaldiaren esanahia kontzeptu bakar batean murrizteko. Sailkapen lana



egin zuten: aditzak, izenak, izenondoak... arbelean kokatu eta denak beraien emozionalitatea albo batera utzita eztabaidan eta kontzeptu bat bestearekin lotuz torturaren mapa sortu zuten.

Narratziotik kontzeptuetaranzko bidaia batean aritu ziren, esaldietatik hitzetara; tortura jasandakoek eta jasan ez dutenek, den denek, torturak norbanakoan zer eragin izan dezakeen begirada bakar batean ulertu ahal izateko Zer den, nolakoa den, eta nola aurregiten zaion erakustea ahaztu gabe. Mila esker.

Oihana Barrios (Psikologoa)

Oihana Barrios, Jalgi Hadi elkarteko psikologoa: “Tortura bizitza osorako eramaten da gainean”



Estatu Espainiarrean torturaz asko dakienez multzo txikian da Oihana Barrios (Iruña, 1982). Biolentzia politikoa jasan duten pertsonen arduratzen den Jaiki Hadi elkarteko psikologoa da. Espainiako Neuropsikiatria Elkarteko Giza Eskubideen ataleko zuzendaritzako kidea ere bai. Eta tortura frogatzeko tresna funtsezkotzat jotzen den Istanbulen Protokoloaren irakasle. Torturaren ilunean abiatu gara bere jardun argigarria medio eta, batez ere, hark pertsonengan duten eraginean murgildu gara.

Kopurutan Euskal Herrian jaitsi egin da tortura azken lau urteetan. Askoz atxiloketa gutxiago dago, baina Estatuak ere nazioarteko presio handiagoa du urtetik urtera. Formetan ere eman dira aldaketak, “batez ere psikologikoak dira, ez fisikoak”, Barriosek azaltzen duenez. Espainian agintzen dutenek ez dute gustuko psikologoaren lana, Jaiki Hadiren aurkako operazioan atxilotu zuten iragan martxoan. Auziperatua da orain, bera ere “dena da ETA”ren biktima.

Zer bilatzen du torturazaitaleak?

Baliteke 70eko edo 80ko hamarkadetan informazioa bilatzeko teknika izatea, baina azken hamarkadan oso agerikoa da nahi duten informazioa torturatu aurretik ere badutela. Torturaren gaia urte luzez aztertu ondoren, ez dut uste hori denik helburu garrantzitsuena. Horretarako baino gehiago erabiltzen da mugimendu politiko bat suntsitzeko. Norbanakoa suntsitzen da, horrekin kolektibo oso bat beldurtu eta txikitzeko.

Nolakoa da torturazaitalea? Egin ahal da ikerketarik zer pertsona mota diren jakiteko?

Zaila da, haiek ez daudelako ikertzaileekin hitz egiteko prest. Oso kasu gutxitan lortu dira elkarriketak torturazaitaleekin, batez ere Latinoamerikakoak eta Europako Ekialdekoak izan dira. Torturazaitale damutuak ohi dira, gero lasai bizi ezin direnak. Baina torturazaitale gehienek era positiboan onartzen dute beren lana. Hobe da pertsona hori suntsitzea honek gizartea suntsi-

tzea baino. Egindakoa justifikazio moral horren gainean egiten dute. Bizitza guztiz normala daramate, ez dira psikopatak edo munstroak, beren lana da eta etxera erabateko normaltasunez doaz. Hala ere, polizian ere edozeinek ez du balio torturatzailerik izateko eta profil jakineko jendea sarzzen da talde horietan.

Badakigu zerbait hautaketa prozesu horiei buruz?

Gutxi, bakarrik psikologo eta psikiatra askorekin egiten dutela lan. Pentsatzen dut pertsonen profila aztertuko dituztela, jakiteko nor balio dezakeen torturatzailerik izateko eta hori jasateko. Behin taldea eratzen denean, horiek bakarrik formatzen dituzte torturan, beste poliziek akaso jakin ere ez dakite talde hori existitzen denik, eta jakinda ere, kideak nortzuk diren ez da ezagutzen.

Luze irauten dute lan horretan?

Batzuek behintzat bai. Hainbat garaitan torturatutakoek torturatzailerik deskribatzen dituztenean konturatzen zara pertsona berak direla.

Torturatzailerik batek berak torturatutako gazte bat agurtu zuen Iruñean. Beraz, hemengo jendea da?

Hemengo taldeak dira eta Madrilen ere bada hango talde bat. Madriler a txilotearekin doaz hemendik, han bospasei egun egin eta gero buelta. Torturatua kalean agurtzearena oso maiz gertatzen da, batez ere atxilotu ondoren askatzen badute.

Baina normalean torturatuak ez ditu haien aurpegiak ikusten, ezta?

Batzuetan bai. Batzuetan torturatzailerik kaputxa kentzen du, batez ere atxilotuaren inculpazioa lortuta duenean, lana amaitutzat ematen duenean. Torturatuak haien aurpegiak ikustea nahi dute. Hori amesgaizto latza da, aurpegi hori ez zaizu burutik joango bizitza osoan. Horregatik egiten dute eta horregatik hobe da aurpegiak ez ikustea.



Torturatuaren testigantzetan oinarrituta, tortura era profesional eta zientifikoan frogatzeko tresna bat behar genuen: hori da Istanbulko Protokoloa”

Era denetako kasuistakak izango dira, baina torturatuak kentzen du noizbait torturaren zama bere gainetik?

Ez du kenduko, bizitza osoan eramango du gainean. Gainditu ditzake sintoma batzuk, kokatu dezake arazoa ondo, gertatutakoa ulertu, zauri batzuk sendatu... baina halako esperientzia batek haren bizitza irauli dezake. Gehienetan esaten da bat zarela torturatu aurretik eta beste bat ondoren.

Milaka torturatu izan dira eta horietako askok agian oraindik torturaren bola hori bueltaka izango dute barruan. Zer aholkatu ahal zaie?

Ateratzea bola. Torturara hurbiltzeko era aldatzen ari da gizartean, gero eta ikerketa gehiago dago, gero eta gehiagok egiten du haren aurka, ikusgarriago egin da, Jaurlaritza ere ikertzen hasi da... Hori guztia ere ona da pertsona horiendako, norbaitengana joateko animatu ditzakeelako, testigantza ematera, salaketak egitera...

Hala ere, beste belaunaldi bateko torturatu askok, tortura beren militantziaren parte gisa integratua dute; jasan beharreko ondorio gisa hartzen zen eta ez zitzaion halako kasurik egiten norberaren indibidualismoari. Sarri konparazio gogorrak ere egiten dira: “Nola kexatuko naiz ni beste hura hilda badago?”. 90eko hamarkadaren

“

Torturatuak ustez, gizarteari on egiten diote torturatuak pixka bat suntsituz, hau da, hobe da pertsona hori suntsitzea honek gizartea suntsitzea baino”

erdi aldetik aurrera, batez ere TAT [Torturaren Aurkako Taldeak] lanean hasi zenetik, torturaren gaiari ikusgarritasuna eman zitzaion eta espazio humanoari leku gehiago.

Hainbatetan torturaren bola hori barruan mantentzeak ondorio psikologikoak ere izango ditu.

Bai, trauma ondoko estresa da guk gehien ezagutzen duguna eta baditu hainbat sintoma: batzuetan antsietatea, lo egiteko arazoak, tortura gogoraz diezaiokkeen edozer gauzarengandik urruntzea... Baina torturaren ondorioak harago doaz, gerta litezke depresio latzak, antsietate luzeen ondorioz bihotzeko arazoak sortzea, desoreka orokor bat, gerta liteke ez kokatzea mundu honetan eta duela 30 urtekoan giltzatuta geratzea, edo gerta litezke arazo oso fisikoak baina psikosomatikoak direnak. Izan litezkeen latzenak nahaste psikotikoak dira, baina hauek gutxiengo dira.

Kamarak hainbat lekutan, atxiloketa komunikatuak, Auzitegi Gorenaren epaiak... Espainian hasi dira trabak jartzen torturari.

Bai. Nazioarte mailako doinua askoz gogorragoa da Espainiarekiko, bai Europako Torturaren Prebentzioaren Aurkako taldeagatik, eta bai Estrasburgoko Auzitegiaren epaiengatik. Torturaren

aurkako neurriak har daitezkeen eskatzen zaio Espainiari eta hori islatzen da tortura kopuru jaitsieran, inkomunikazio kopuru txikiagotan. Nire atxiloketan [2015eko martxoa], Guardia Zibilak Madrilgo Tres Cantoseko komisaldegira eramanez ninduen eta atxilotuen ziegetan kamarak ziren, baina korridore eta galdeketa geletan ez. “Zuen erruz jarri behar izan ditugu” esan zidan eta gehitu zuen azkeneko 10 sarekadetan ez dela inor inkomunikatu. Ez dakit guztiz egia den, baina bai, izatekotan oso gutxi izan dira. Oso pauso handia da, inkomunikazio egoerak tortura ahalbideratzen duelako.

Tortura agintzen dutenekiko, goranzko eskilaran noraino iristen dira?

Ez dakigu ezer, baina dedukzioan maila politiko handiko pertsonak izan beharko lirateke, gutxienez baimentzen dutenak.

Gaur egungo biktimen esparruan, tortura non kokatzen da?

Gure torturatu guztiek aitortza aldarrikatzen dute, ez hainbeste erreparazio ekonomikoa edo judiziala. Ez dira baztertuak izan, baina bai ezkutatatuak. Haien zat mingarriena da gizarteak ez sinestea pasatu dutena, eta aitortzarekin, torturatuak ikusi egiten da, orain arte gertatu ez dena. Aitortza, erreparazioa eta ez-errepikatzea: gatazka askotan erabiltzen diren hiru kontzeptu horiek dira torturaren kasuan gehien aldarrikatzen direnak.

Eusko Jaurlaritzaren txostena argitara ematean, torturaren ikusgarritasuna handia izango da. Aitor-tzan aurrera egingo da, eman liteke erantzukizun penalik?

Ez dut uste hori inoiz gertatuko denik. Baina aitortza hori era askotara egin daiteke: Eusko Jaurlaritzaren ikerketa bada aitortza bat, *Incomunicación y tortura* ikerketa ere bai. ■

“TORTURA IKUSGARRIAGO EGINGO DU EUSKO JAURLARITZAREN IKERKETAK”

Jaurlaritzak aginduta, Paco Etxeberriak zuzentzen duen torturaren ikerketa taldeak bost hamarkada ikertuko ditu. Hor ere asko ikasi daiteke.

Ikerketa horretan EAEn 1960tik 2010era izan diren tortura kasuak ikertzen dira bi zatitan banatuta, 1977ko amnistia artekoa eta ondorengoa. Istanbulko Protokoloa aplikatzen ari gara 200-300 kasutan eta horko testigantzekin jasotzen dugu tortura nolakoa zen garai hartan. Garai hari buruz, aipamen berezia merezi du Eva Forestek, bera izan zelako benetako aitzindaria torturaren ikerketan.

Istanbulko Protokoloak badu balio frogua, baina ematen zaio behar adinako garrantzia Espainian?

Oraindik ez. Auzitegi Nazionaleko medikuek, adibidez, ez dute ezagutzen eta ez dute erabiltzen. Instituzio publikoetatik ez dago ezer egituratua mediku horiek Istanbulko Protokoloan formatzeko. Europako herrialde askotan eta Latinoamerika guztian instituzioetatik bideratzen dira formazio horiek, psikologoa bazara tresna hori kontrolatu behar duzu, beste hainbat lanetan Word bezala.

Espainian duela zazpi urte arte gutxi ginen AENko formatzaileak Istanbulko Protokoloan eta azken urteotan beste 30en bat formatu ditugu. Horretarako oso garrantzitsua izan zen 2013an kaleratutako *Incomunicación y tortura* liburua. Istanbulko Protokoloa erabilita, Euskal Herrian inkomunikazioa eta tortura jasandako 45 pertsonen azterketa egin zen, 1980tik 2010era arteko lagin bat hartuta. Torturatuen testigantzetan oinarrituta, tortura era profesional eta zientifikoan frogatzeko tresna bat behar genuen: hori da Istanbulko Protokoloa.

Eta zertan oinarritzen da Istanbulko Protokoloaren sinesgarritasuna?

Arazo asko izan ditugu frogatzeko Euskal Herrian jende kopuru handia ari zela tortura jasaten. Adibidez, nahiz eta gu profesionalak izan, liburu horren ikerketaren aurretik sinesgarritasun gutxi genuen Espainian, ideologikoki ezker abertzalearen inguruan kokatzen gintuztelako. Hortik ondorioztatu genuen, Euskal Herritarrak ez ziren pertsonak egin behar zutela ikerketa lan hori.

Ikerketak sinesgarritasun maila handia du: nik hemengo torturatu bati aplikatzen diot Istanbulko Protokoloa, gero Bartzelonako batek egiten dio berriz; ondoren frogua guztiak eta testigantza grabatua Madrillgo psikiatra bati pasatzen zaio eta, azkenik, IRTCrA (Torturaren Biktimak Errehabilitatzeko Nazioarteko Kontseilua) doa guztia eta honek bere ondorioa ematen du. Torturatu bakoitzaren prozesua ez da ontzat ematen lau peritoen onespina jaso arte. 45 kasu horietatik bakarra ere ez da gezurtzat jo. Espainiako torturen kotoiaren frogua izan da hau.

Nola da posible halako lanak ez aintzat hartzea?

Medio espainiarretan ez zen ezta albistea argitaratu eta aurkezpena Madrilen egin genuen, Amnesty Internationalekin, IRTCko ordezkariarekin, NBEko ordezkariarekin eta maila profesional handiko jende osatutako jardunaldiarekin. Kazetari batek esan zigun halakorik ez ateratzeko agindua zutela. Hori guztia egin eta ez genuen lortu gure helburua, hau da, Espainian ikerketaren berri ematea.

Hala ere, lorpenak beste era batekoak ere izan dira: Euskal Herrian eman da ikerketaren berri eta Espainian ere sinesgarritasuna irabazi dugu hainbat erakunde profesionalen aurrean. Gainera, bidea zabaldu dio orain Eusko Jaurlaritzak agindutako ikerketari. Lan hori egin genuen perito taldea gehi apirilean formatu genituen beste 15-20 lagun ari gara orain Jaurlaritzarenean 200-300 tortura kasu aztertzen, hemen ere Istanbulko Protokoloa oinarri hartuta. 2016ko apirilera bukatu behar dugu gure lana. Eta Jaurlaritzaren lana izanik, akaso lortuko du bestelako arreta Espainiako hedabideen aldetik.

Euskal Herrian 10.000 tortura kasuez ari gara.

Horiek TATEko datuak dira. Informazio hori eta beste hainbat erabilita, torturatuen errolda egiteko lan handia egiten ari da orain eta, zorionez, beste lasaitasun batekin. Torturatuak izan direnei ere deialdia egin beharko zaie bulego batera ager daitezen. Oraingoan, Jaurlaritzako peritoen lana 2016ko apirilera bukatuko dugu; gero Kriminologiaren Euskal Institututik pasatu beharko da eta honek ere beharko du denbora lana bukatzeko. Torturatuak dira torturaren memoria egokiena.

Ramón Oñederraren gurasoak: “Besterik gabe hala lagatzea... min egiten du horrek”

1983ko urriaren 16a. Joxean Lasa, Joxi Zabala eta Ramón Oñederra *Kattuk* elkarrekin afaldu zuten. Oñederrak ez zekien lagunak ez zituela gehiago ikusiko, gauerdia aldera bahitu zituen GALEk eta egunetan torturatu ondoren Alacanten hil eta ehortzi zituzten. “Hurrengo ni izango naiz”, esan zien ingurukoei.

Bera ere jarraitzen zutela ohartua zen 23 urteko Oñederra gazteak lagunaren desagerpenaren berri jakin ondoren. Abenduaren 19ko arratsaldean hil zuten tiroz tabernari lanetan ari zen Baionako Kaietenara ostatuan. GALEk bere gain hartu zuen lehen hilketa zen.

Azkoitiko Kale Nagusian bizi dira bere gurasoak, Pruden Oñederra eta Arantza Bergara. 32 urte pasatu dira semea galdu zutenetik: “Galantak pasa ditugu. Min hori ez da behin ere pasatzen”, dio aitak begiak umelduta. “Eta gainera, ez dute pasatzen laga, beti dago zerbait, terroristak direla eta halakoekin”, gehitzen du amak.

Herriko xake taldean aritzen zen Ramón gaztea Ipar Euskal Herrira ihes egin aurretik eta hil zutenetik urtero egiten diote omenaldia herrian. Mina ez da baretzen, baina omenaldia ukendu goxoa da urtero, ez dute esaten haiek, baina nabari zaie hartaz jardutean: “Urtero egin izan da xake txapelketa eta guk banatu ohi ditugu sariak”, dio aitak harro.

Ez da erraza etengabe semearekiko sentimenduak gogora ekartzea, baina buruak samur egiten dio

atzera aitari: “Hil ondoren Azkoitiara ekarri behar genuen gorpua, bide nagusitik herriz herri. Hala izan zen mugara arte eta jende askok egin zion azken agurra semeari, baita Donibane Lohizunen bidera aterata Monzonon [Telesforo] emazteak ere [Josefa Munoa]. Mugara iritsi, aldiz, eta Guardia Zibilak bahitu zuen gorpua eta Azkoitiraino ekarri”.

GALEk hartu zuen bere gain hilketa, Espainiako Justiziak ekin zion auzia ikertzeari, baina ezertara iritsi gabe. 1995ean ireki zen Oñederra auzia Auzitegi Nazionalean eta Baltasar Garzón epaileak bideratu zuen. Espainiako segurtasuneko hiru goi kargu egon ziren inputatuak, beste askoren artean: Enrique Rodríguez Galindo, Andrés Cassinello eta Emilio Alonso Manglado. Baita Intxaurrondoko kuarteleko Felipe Bayo eta Enrique Dorado guardia zibilak ere. Lehen hirurak 2002an utzi zituen auzitik kanpo Auzitegi Nazionalak eta urtebete ondoren auzia artxibatu zen, epailearen aburuz inoren aurkako frogak sendorik ez zegoelako.

Rodríguez Galindo, Bayo eta Dorado Lasa eta Zabala bahitu, torturatu eta hiltzeagatik epaituak izan ziren eta 75 eta 71 urteko espetxe zigorrak jaso zituzten. Osasun arazoak argudiatuta, Guardia Zibileko Galindo generalak lau urte egin zituen espetxean, beste bi guardia zibilek sei.

Ospe handiko auzia izan zen Oñederra auzia horrexegatik guztiagatik, eta bereziki saio honetan Baltasar Garzón saiatu zelako frogatzen GALEko X ospetsua PSOEko buruzagi Felipe González izan zela: Espainiako Gobernu buru ohia auziperatu nahi izan zuen, baina Auzitegi Gorenak atzera

bota zuen saio hori eta beste inputazio guztiekin jarrai zezala agindu zion.

HERRITARREN SOSTENGUA

Semeaz jardutean begiak dir-dir egiten dio Prudeni hainbatetan. Baina Arantza eta Prudenen etxeko egon-gelan isilune astuna sortzen da batzuetan. Izan zenuten esperantzarik? “Hasi ziren ikertzen, baina ezer ez –zehazten du etsipen keinuz aitak–, Ramón hil zutenak Intxaurrendoko kuarteleko guardia zibilak ziren, baina jende handiegia zen hori. PP hor dagoen bitartean ez da ezer argituko, eta PSOEek ere ez zuen inongo interesik izan. Haiek izan ziren eta!”.

Lasa eta Zabalaren itzala ere hainbatetan izan da elkarrizketan, Prudenek semea haiekin dagoen argazkia atera du. Eta haiei buruzko filma?: “Guk ez genuen ikusi –argitzen du Arantzak–, esan ziguten ez okurritzeko ikustera joatea”.

“Semeak zazpi bala zulo zituela esan zen, baina 10 zirela esan zidan auzitegiko medikuak” –zehazten du Prudenek–. Intxaurrendora Alemaniako munitzioa ekarri zutela irakurrita nuen *Intervium*. Epaike-tan berretsi zen erabilitako balak alemanak zirela.

Izan dute herritar askoren sostengua eta, ezagun da, estimatzen dute. Aitak urteetan *Maxixatzen* herriko aldizkariak edo beste argitalpen batzuek omenaldiaz argitaratu orrialdeak erakusten dizkit froga gisa. Ondo bilduta ditu guztiak, album eta poltsetan gordeta. Bere historia zaletasunak laguntzen dio horretara. “Baina badakizu, denbora asko pasatu da –dio amak–, eta pixkanaka ahaztu ere egiten da, lausotu. Eta hala ere, omenaldia egiten da herrian eta jende asko joaten da”.

Instituzioen aldetik inor gutxi hurbildu zaie hamarkada hauetan. “Semea hil zutenean, orduan lehendakari zen Carlos Garaikoetxeak idazki bat bidali zigun, bere izenean doluminak emanaz. Hil zutenean, aldiz, udalean agintzen zuen EAJk ez zuen utzi gorpua udaletxean jar zezaten”.



Pruden eta Arantza, Ramón Oñederraren gurasoak Azkoitiko euren etxean.

ESPERANTZARIK EZ

Zuentzat zer litzateke justizia egitea? “Behintzat jakitea nor izan zen”, bota du amak blaut. “Eta jakiteaz gain epaitzea”, gaineratzen du aitak. “González izan zen”, bukatzen du amak ttinko. Eusko Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak ere ETaren biktimak ez direnen ezagutzan urratsak eman dituztela ere utzi dut mahai-gainean: “Bai, guri ere iritsi zaizkigu gonbidapen eta paperak. Hor dabilta”.

Justiziarako esperantza gutxi, baina nahi dute. Doinurik igo gabe, baina erraieratik atera zaio amari: “23 urteko semea galdu eta gero besterik gabe hala lagatzea... horrek mina ematen du gero!”. Aitari ere barrutik egin dio jauzi: “Gainera, ezin dira ETaren biktimak eta beste biktimak konparatu, esaten dute. Baina, sufrimendu desberdina al dute ala?”. Amak: “Min egiten du horrek, areago zahartzen zarenean. Gaztetan errazagoa zen dena eramatea, orain zailago. Orain edozein gauzak gehiago afektatzen du”.

Bukatu dira galderak. Haien jarduna ez, ordea, “birbilobak ere izan ditugu”, eta alaitzen zaie aurpegia. Eta kontu kontari jarraitzen dute. Tristezia latzetik irribarre sendora urrats batean. “*Es lo que hay*” utzi du amak airean. ■

BIZI BARATZEA

garaian · garaikoa · garaiz.

Jakoba Errekondo

3. argitaraldia



Gure kultura
iraultzen ari den
liburua

"Nik ere uste dut etorkizun hobea ez dela etorriko lehenbizi hartu eta gero emanda; eta gure auzolaneko ohiturak iraun dezan, komeni zaigula eman-hartuetan gehiago aritzea. Ni ere jakobito bihurtu ote naiz?"

**Mikel Irizar, GFAko Hizkuntza
Berdintasunerako zuzendaria**

"Baratzea biritzea izan daiteke guk geuk gauzatu zapalkuntza batzuei buelta emateko modua, baiki. Baratzetik kanpo ikasi ditugun beste alternatiba batzuen barruan txertatzerik ba ote dugun nuke gaur galdera: bizi ote dezakegun berri"

Danele Sarriugarte, idazlea

"Jakoba, konbentzitu egin nauzu. Liburuan esaten duzun bezala, baratzeak, lagunak bezala, denbora behar du, ez gehiegi, baina etengabe"

Mikel Garaizabal, enologoa

23 €

19,50 €
harpideentzat

Eskaerak:

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

 **argia**

an(t)za
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA